



*Kaixo pottolis:*

*Dagoeneko jakingo duzuezen hemen gabilta denok jo eta su lanean zuen herriari buruzko erakusketa bat prestatzeko asmoz. Gure supermakina erabiliaz, Erdi Aroraino joan ginen, eta garai hartako gauza asko ikasi eta ikusi ondoren, Euskal Herriko herri gehienak garai hartan sortu zirela ohartu ginen.*

*Hortik abiatuaz, hara nola iritsi garen gure herria gehiago ezagutzera eta biltzen ditugun datu guztiekin erakusketa bat antolatzeraz! Zuek egiten al zenituzten horrelako gauzak txikiak zinetenean?*

*Beno bada, eskutitz honen bitartez jakin ezazue gure erakusketa Herriko Kultur Etxean (ikastolan) halako eta halako egunetarako antolatu dugula eta inoiz ikusi duzuen politena izango dela.*

*Bestalde, eskutitzaren aukera hau zuei ezer eskatu gabe pasatu ezin dugunez, oraingo honetan etxeko lan erraza eta polita jarriko dizuegu: etxean dituzuen argazkien artean, herrian ateratako zaharrenak aukeratu, fotokopiatu eta, gaur egungo beste argazki batekin, ikastolara bidali ezazu. Gutxienez bi behar ditugu liburuan erantsi ahal izateko, baina gehiago bidaltzeko aukera baldin baduzue, bihotzez eskertuko dizuegu.*

*Argazkietan berdin da zuen familiako pertsonak agertzea, baina posible bada, herriko txokoren bat agertzea izango litzateke onena, denboran zehar eman diren aldaketak alderatzeko. Adibidez, zuen aitona-amonak herriko plazan, edota zuen birraitona astoa elizaren ondoan lotzen... Ados? Je, je, je... zer arraio egingo genuke guk zuen laguntzarik gabe?*

*Erakusketan elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.*

*Maddalen eta Fermin*